

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko irailaren 11tik 17rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/09/17

- **HITZARMEN KOLEKTIBOA.** - Ebazpena, 2021eko irailaren 3koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den informazioko, harrerako, sarbideen kontroleko eta instalazioak egiaztatzeko laguntza-zerbitzuen enpresen estatuko hitzarmen kolektiboa. **15124 xedapena - 43 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/09/17

- **Euskadiko Administrazioak. - EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** - Arabako erainkuntza eta lan publikoak sektorearentzako hitzarmen kolektiboa. **3077 xedapena - 52 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/09/16

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/965/2021 Agindua, irailaren 15koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. **15041 xedapena - 2 or.**

2021/09/17

- **GORTE NAGUSIAK. - Babes soziala.** - Ebazpena, 2021eko irailaren 13koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila

zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko babes sozialeko neurriak hartzen dituen abuztuaren 3ko 16/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze-akordioa. 15093 xedapena - 1 or.

- **Diputatuen Kongresua. Erregelamendua.** - Diputatuen Kongresuaren Erregelamenduaren erreforma, 46.1 artikulua aldatzen duena. 15094 xedapena - 1 or.
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Landareen osasuna.** - 739/2021 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, zeinaren bidez xedapenak ematen diren landareen izurriteen aurka babesteko neurriei, kontrolei eta arlo horretako beste jarduera ofizial batzuei buruzko Europar Batasunaren araudia Espainian aplikatzeko. 15095 xedapena - 20 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/09/16

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** - EBAZPENA, 2021eko irailaren 8koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 4/2021 Foru Dekretu-Araua, TicketBAI betebeharren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoa. 4754 xedapena - 1 or.

2021/07/29

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - 181/2021 DEKRETUA, uztailaren 20koa, EAEko langile autonomoen elkarte profesionalen erregistroaren antolaketa eta funtzionamendurako araudia onartzen duena. 4214 xedapena - 8 or.
- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - EBAZPENA, 2021eko uztailaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita COVID-19aren ondorioz ezarritako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragina jasan duten langileentzako ohiz kanpoko laguntzen laugarren deialdia. 4224 xedapena - 7 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/09/13

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 123/2021 FORU DEKRETUA, irailaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei Buruzko Araudi Orokorra onesten duen abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua. **I-730 xedapena - 2 or.**

2021/09/15

- **Gizarte Ekintza Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 124/2021 FORU DEKRETUA, irailaren 7koa, zeinaren bidez arautzen baita familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen zaintzaileek aldi baterako egoitza-zerbitzuaren bidez atseden hartzeko prestazioa ekonomikoa. **I-727 xedapena - 5 or.**

2021/09/16

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak.** - 2021eko uztailaren 14ko Osoko Batzarrean hartutako Erabagia, Foru Dekretu Arauemaile hau berresten dauena: zerbitzuen prestazioetarako eta ondasunen urrutiko salmentetarako balio erantsiaren gaineko zergari buruzko betebeharrak jakin batzuei dagokienez, 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2009/132/EE Zuzentaraua aldatzen dituen Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentarauaren, eta, ondasun nazionalen urrutiko salmentari eta nazioko ondasunen entrega jakin batzuei buruzko xedapenei dagokienez, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2019ko azaroaren 21eko 2019/1995 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duenari buruzkoa. **I-729 xedapena - 1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO